

DONOSTIAKO GAZTEENTZAKO NAZIOARTEKO MUGIKORTASUN-PROGRAMAN PARTE HARTZEKO BEKAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK, BIODIBERTSITATEAREN ETA NATURA-ONDAREAREN ARLOAN GAITASUNAK GARATZEKO ETA PROIEKTU BERRITZAILEAK BULTZATZEKO (CONNECTING TALENT BEKAK – BIODIBERTSITATEA 2024) ETA 2024KO EKITALDIKO DEIALDIA, EUOPAR BATASUNAK FINANTZATUTAKO BERRESKURATZE-, ERALDATZE- ETA ERRESILIENTZIA-PLANAREN ESPARRUAN – NEXT GENERATION EU

XEDAPENAK

Donostiako Udalak Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren 14. osagaiko 1. inbertsioko 2. azpineurriaren esparruan tokiko erakundeen inbertsio-jarduketan finantzazioan parte hartzea eskatu zuen Covid-19 pandemiatik eratorritako ekonomia-krisi, gizarte-krisi eta krisi humanitarioaren ondoren berreskurapena laguntzeko Europar Batasunaren berreskurapenerako Tresnaren barnean.

Donostiako Udalaren dirulaguntzaren eskaeran, eta Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren 14. osagaiko 1. inbertsioko esparruan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiaren, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren bidez, eta Donostiako Udalaren artean Euskadi Jomuga duen Turismo Jasangarritasunaren Lurralde Planean kokatzen den Donostia jomuga duen Turismo Jasangarritasunaren Plana gauzatzeko Hitzarmenean tokiko erakundeen aldetiko inbertsio-jarduketan finantzaziora bideratutako kreditua banatzeko irizpideak zein Autonomia Erkidegoetan horiek banatzeko modua finkatzen dituen Turismoko Arloko Konferentziaren Erabakia argitaratzeko Estatuko Turismo Idazkaritzaren 2021eko abenduaren 23ko Laguntza Emakidaren Ebazpenean Donostiako Udalak Jarduketa eta Ardatzak atalaren barnean egiteko jarduerak jasotzen dira.

Ekosistema-zerbitzuak balioan jartzeko Jarduketako Trantsizio Berde eta Ekologikorako 1. ardatzaren barnean, diruz laguntzeko jarduera modura ingurumen-biodibertsitatea ikertzeko programak martxan jartzea aipatzen da.

2004. urtean, Donostiako Artikutza gunea Natura Sarea 2000 sarean sartzen da KBE eremu gisa. Une horretatik aurrera, Artikutzaren kudeaketa lursailaren bioaniztasuna babestu eta sustatzera bideratu da azken urteotan. Hori dela eta, hiriaren interes nagusia beka horiek antzeko lekuen ingurumen-kudeaketari begiratzea da eta, zehazki, lursailean dauden elementuekin lotutako gaiak lehenetsiko dira, esate baterako, baso

misto zabalak, hezegune txikiak, haginak, hustutako urtegien egoera birsortzea, mendiko ibai ekosistemak, espezie babestuak (Pirinioetako muturluzean interes berezia), antzina ustiatutako guneak naturaren ikuspegitik birsortzea (egurra, meatzaritza, burdinolak, artzaintza...).

Hori dela eta, atzerrian garatzeko “Connecting Talent Bekak- BIODIBERTSITATEA 2024” izeneko programa, biodibertsitate eta natura ondarearen nazioarteko Ikerketa programa, planteatzen da. Nazioarteko mugikortasunerako programa horren bidez unibertsitate mailako eta goi mailako lanbide heziketako titulazioa duten Donostiako gazteek, biodibertsitatearen eta Natura ondarearen esparruan, atzerrian erreferentziako erakundeetan egonaldiak egin ahal izatea da asmoa, Donostiako gazteen mugikortasuna sustatuz beren berrikuntza-gaitasunak garatu eta beren laneratzea hobetzeko eta, aldi berean, Artikutzako gunearen ingurumen-kudeaketari balioa eta ezagutza emateko.

CONNECTING TALENT-BIODIBERTSITY 2024 BEKA programak CONNECTING TALENT-BIODIBERTSITY 2024 BEKA-ren aurreko deialdiari jarraipena ematen dio, zeinaren helburu nagusia donostiar gazteei balio erantsiko aukera profesionalak eskaintzen jarraitzea, baita nazioarteko konexioak sortzea eta sustatzea ere. hiriaren ekosistemen berrikuntza.

Horretarako, Donostiako Udalak ez du programa hori behar bezala garatzeko nahiko bitarteko pertsonal eta material. Horrenbestez, komenigarritzat jo da erakunde kolaboratzaile bat izendatzea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 12. artikuluan aurreikusten denarekin bat etorritzat. Artikulu horretako 2. atalean xedatzen denez, erakunde kolaboratzailetzat hartu ahal izango dira Herri Administrazioek osorik edo portzentaje handienez partaidetutako merkataritza-sozietateak.

2011. urteaz geroztik Donostia Sustapenak eta Donostiako Udalak tresna estrategiko bat baliatu dute, hots, **Ekonomia Sustatzeko Plana**.

Azken 10 urteetan zehar, goranzko bilakaera bati eta ezarritako helburuak betetzeari esker dagoeneko sendotuta dagoen tresna horrek hiriak gizartearen eta ekonomiaren ikuspegitik zituen erronka ezberdinei aurre egin ahal izatea ahalbidetu du, tokiko mailan ez ezik maila orokorrean, bere lehiakortasun eta posizioa igoz.

Urteko Planaren helburu nagusia bide berri bati ekin ahal izatea da, aurrera egin eta etorkizunari **pertsonen** begirako ekintzen bidez aurre egitearen alde egiten duena, **proiektu berritzaileen** garapena babestuz eta proiektu horien, talentuaren garapenaren eta **Donostiako hiriaren** beraren garapenaren euskarri izan daitezkeen tokiko ekosistemako **eragile gakoekin** sarean lan eginez.

Esparru horretan tokiko eragile sozial zein ekonomikoekin hiriak, tokiko mailan zein maila orokorrean, dituen erronkak adostu ondok, egungo nazioarteko egoerak baldintzatutako erronkak txertatuz, Donostia Sustapenak, honako hauek lortzearen alde lan egiten du:

- **Donostia kohesionatua**, laneko aukera berriak garatuz, zailtasun gehien dituzten kolektiboetan arreta berezia ipiniz.
- **Donostia ekintzailea**, tokiko lehiakortasuna areagotuko duten enpresa-proiektuak bultzatuz.
- **Donostia zerbitzuen hiri modura**, merkataritza-ehun kalitateko eta berritzaile baten alde eginez.
- **Donostia** Zientzian eta Berrikuntzan oinarritutako ekonomiaren garapenerako eredu modura.
- **Donostia** Hiri Eraldaketarako prozesu berritzaileen laborategi-hiri gisa.

Bost ardatz horien bidez, Donostia Sustapenak hiriari izaera lehiakor eta berritzaileagoa ematen jarraitu nahi du, baina baita sozialago, irekiago eta kohesionatuagoa, gazteen, berdintasunaren eta bertako auzoen arteko gizarte-kohesioaren alde egingo duen hiri-eredu bat indartuz.

Aurrekoa kontuan izanik, Donostia Sustapenak dirulaguntzak eta laguntzak kudeatzeko zein Europako Funtsak kudeatzeko bitartekoak eta esperientzia zabala ditu. Horrek, bere espezializazio-maila gaineratuz, Erakunde Kolaboratzaile zereginak burutzeko erakunde egokiena izatea eragiten du.

Programa Europar Batasunak (Next Generation EU) eta Industria eta Turismo Ministerioak zein Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak finantzatutako Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan gauzatzen den “Donostia Jomuga duen Turismo Jasangarritasunaren (DJTJ) (2022-2024) Planeko” proiektuko jardueren barnean kokatzen da.

Herri Administrazioa modernizatzeko eta “Europako Funtsekin finantza daitezkeen dirulaguntzak arautzeko oinarrietan horien deialdia gaineratu ahal dela” ezartzen duen Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko premiazko neurriak onartzeko abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuko 61.1 artikuluan xedatzen denez, 2024ko ekitaldirako beka hauen oinarriak eta deialdia, biak batera, onartzen dira.

1. ARTIKULUA HELBURUA

1.- Erregulazio honen xedea da beka arautzeko oinarriak ezarri eta 2024ko ekitaldiko deialdia luzatzea, biodibertsitatearen eta Natura ondarearen esparruan gaitasunak garatu eta proiektu berritzaileak sustatzeko Donostiako gazteei zuzendutako nazioarteko mugikortasunerako programan parte hartzeko **“CONNECTING TALENT BEKAK- BIODIBERTSITATEA 2024”**.

2.- Bekak Oinarri hauen babesean ematen dira eta deialdia Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan gauzatzen den “Donostia Jomuga duen Turismo Jasangarritasunaren (DJTJ) (2022-2024) Planeko” (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 Erregelamendua (EB), 14. osagaiko,

1. inbertsioko 2. azpineurriaren barruan, eta Europar Batasunak finantzatuta (Next Generation EU) proiektuaren barruan kokatzen da.

3.- Erregulazio honen arabera ematen diren bekak, indarreko araudiak Europako laguntzen arloan halakotzat ez hartzeko ezartzen dituen betekizunak betetzean, Europar Batasunaren Funtzionamenduaren Tratatuako 107.1 artikuluan zehaztutako esparrutik at geratuko dira.

Ez dira estatu-laguntzat hartzen, onuradunak jarduera ekonomikorik egiten ez duten pertsona fisikoak baitira.

2. ARTIKULUA.- BEKEN XEDEA ETA DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN PROGRAMAK

1.- Programaren helburua hiriko berrikuntza ekosistemaren nazioarteko konexioak sortzea eta bultzatzea da, eta baita ere gaitasunak garatzea eta gazte donostiarrei balio erantsiko aukera profesionalak eskaintzea.

2.- Donostiako gazteei zuzendutako nazioarteko mugikortasunerako programa hau, biodibertsitatearen eta Natura ondarearen esparruan kokatzen dena, **“Connecting Talent Bekak- BIODIBERTSITATEA 2024”** izendatzen da eta unibertsitate mailako eta goi mailako lanbide heziketako titulazioa duten gazte donostiarrei zuzendutako programa bat da, Donostiako gazteen mugikortasuna sustatuz beren berrikuntza-gaitasunak garatu eta beren laneratzea hobetzea ekarriko duten proiektuak, beren profil akademikoan oinarrituak, egiteko eta atzerrian erreferentziazko erakundeetan egonaldiak egin ahal izateko aukera emango diena.

3.- Garatzeko proiektuek izaera berritzaile eta estrategikoa izan beharko dute hirirako berrikuntzarekin, talentuarekin eta tokiko ekosistemaren garapenarekin lotutako gaitetan, betiere, biodibertsitatearen esparruan.

4.- Programaren ezaugarriak dira:

- **8** hilabeteko iraupena duen ikerketa-proiektu bat, atzerrian, nazioarteko erakunde batean, egiteko gutxienez 6 hilabetera arteko egonaldi batekin eta, ondoren, Artikutzako natura-ingurunearekin lotuta Donostian egiteko proiektu batean 2 hilabetera arteko beste egonaldi batekin osatzen dena. Donostia Sustapenak epealdi hauek aldatu ditzazke, beti ere proiektuaren onurarako
- Zuzkidura ekonomiko bat, **16.000** eurokoa, egonaldian zehar ordaindu beharreko gastuak estali asmoz (hilean 2.000 euro gordin). Zuzkidura ekonomiko kontzeptuan ordainduko diren kopuruak unea bakoitzean aplikagarri eta indarrekoak diren PFEZ zergaren atxikipenetara eta Gizarte Segurantzako kuotetara lotuta egongo dira.
- Sarbidea Connecting Talent Komunitatera
- Bekei eta nazioarteko praktika batzuk egiteko moduari buruzko

Informazio/Prestakuntza jardunaldi bat. Hartako edukia eta datak Donostia Sustapenak zehaztuko ditu eta pertsona onuraduna derrigorrez bertaratu beharko da.

Proiektuen jatorria modalitate hauen arabera bereizi ahal izango da:

1. MODALITATEA: “International Connecting Talent-Jomugak”:

Donostia Sustapenaren eta Donostiako Udalaren artean identifikatu eta zehaztutako proiektuak dira, hautagai diren pertsonak beren intereseko proiektua hauta dezaten, honako hauen artean:

1. a) Proiektu estrategikoak garatzeko nazioarteko nodoak: Atzerrian lekutzen diren erakundeek proiektu berritzaileak dira, gazte donostiarrek garatzekoak Connecting Talent Estrategiaren esparruan.

1. b) Donostiako berrikuntzako tokiko ekosistemako eragileek proposatutako proiektu interesgarriak: Eragileekin garatzen diren proiektu esanguratsuak dira, zeintzuekin hitzarmena/lankidetzan mantentzen den talentu gaztearen mugikortasuna ahalbidetzeko. Eragile horiek lanlekua dute Donostian eta proiektuak garatzeko goi mailako kualifikazioa duten profesionalak bilatzen dituzten erreferentziako nazioarteko beste erakunde batzuekin lankidetzan proiektuak garatzeko interesa dute.

2. MODALITATEA: “Zure proiektua garatuz”

Pertsona interesatuak bere garapen profesionala osatu eta bere profil eta helburuetara egokitutako espezializazio kualifikazio bat eskuratzeko aukera ematen dion erakunde bat eta proiektu bat identifikatzen ditu.

Bi modalitateetan, berrikuntza-proiektuak hiriak biodibertsitate eta natura ondarearen esparruan duen estrategiarekin lerrotatuta egon behar dira, nazioarteko erreferentziako erakunderen batean garatu behar dira eta Donostiaren garapenerako strategiari balioa erantsi behar diote. Deialdi honetan eskatzen diren betekizun guztiak betetzen dituzten gazteek aurkeztu behar dituzte.

5.- Oinarri eta deialdi hauek atzerrian egiteko ingurumen-biodibertsitatearen Ikerketa-programa emateko baldintzak ezartzen dituzte, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko 14. osagaiko, 1. inbertsioko 2. azpineurriaren barruan kokatzen den jarduketara bat dena.

Oinarri eta deialdi hauetan araututako laguntzak gauzatzeko erabilgarri dauden funtsek klima-etiketatzetik eratorritako betebeharrak errespetatuko dituzte (035 etiketa, % 100eko klima-ekarpen batekin: Klima-aldaketara egokitu eta klimarekin lotutako arriskuak prebenitu eta kudeatzeko neurriak: uholdeak -sentsibilizazio-ekintzak, babes zibila, hondamendiak kudeatzeko sistema eta azpiegiturak eta ekosistema-ikuspuntuak barne-). Azpineurriak ez du etiketatze digitalik.

3. ARTIKULUA.- ERAKUNDE KOLABORATZAILEA

1.- .Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 12.2 artikuluan xedatzen denarekin bat etorriz, Donostia Sustapena S.A. Sozietateak Erakunde Kolaboratzaile izaera izango du Oinarri hauetan jasotzen diren bekak kudeatzeari begira Udalaren eta aipatu Erakundearen arteko dagokion Lankidetzaz Hitzarmenean ezartzeko baldintzetan.

2.- Horretarako, Donostia Sustapena S.A. sozietateak, dirulaguntzen izapidegile gisa, "leihatila bakar" modura jardungo du hala eskaera burutzeko nola dagokion dokumentazioa bildu eta izapidetzeko.

4. ARTIKULUA ARUBIDE JURIDIKOA

1.- Oinarri arautzaile hauetan ezartzen diren diru-laguntzak, horietan xedatzen dena kontuan izateaz batera, emakidari dagokion deialdian eta ebazpenean ezartzen denaren zein arau hauetan xedatzen denaren arabera arautuko dira:

- 2021/241 Erregelamendua (EB), Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, Berreskurapen eta Erresilientzia Mekanismoak ezartzekoa:
- 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, Herri Administrazioa modernizatzeko eta Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko premiazko neurriak onartzekoa.
- HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema konfiguratzeko duena.
- HFP/1031/2021 Agindua, irailaren 29koa, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren osagaietako neurrien aurrekontu- eta kontabilitate-egikaritzea eta mugari eta helburuak betetzearen jarraipenerako Estatuko Autonomia, Erkidegoko eta Tokiko Entitateek eman beharreko informazioaren prozedura eta formatua ezartzen duena.
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra onartzekoa.
- Laguntzen Emakidari buruzko Ebazpena, 2021eko abenduaren 23koa, Estatuko Turismo Idazkaritzarena, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren 14. osagaiko 1. inbertsioko esparruan tokiko erakundearen aldetik inbertsio-jarduketan finantzaziora bideratutako kreditua banatzeko irizpideak zein Autonomia Erkidegoetan horiek banatzeko modua finkatzen dituena.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiaren, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren bidez, eta Donostiako Udalaren arteko Hitzarmena, Euskadi Jomuga duen Turismo Jasangarritasunaren Lurralde Planean kokatzen den Donostia jomuga duen Turismo Jasangarritasunaren Plana gauzatzekoa.
- HFP/55/2023 Agindua, urtarrilaren 24koa, Susperraldi, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzen duten prozeduretan interes-gatazka arriskuaren azterketa sistematikoari buruzkoa

2.- Halaber, aplikagarri izango da Donostiako Udalaren iruzurraren aurkako neurrien Plana, plan honetatik eratorritako betebeharrekin batera, Tokiko Gobernu Batzarraren 2022ko martxoaren 15eko erabaki bidez onartua, eta Donostia Sustapenaren iruzurraren aurkako neurrien Plana, Donostia Sustapenaren Administrazio Kontseiluak onartua 2022ko martxoaren 29an.

3.- Era berean, erakunde onuradunek derrigorrez betetzekoak izango dira helburu horrekin laguntza ematen duen Administrazioak zein eskumeneko gainerako agintaritza nazional eta Europakoek ezar ditzaketen arauak, eta adierazitako finantzazioaren jatorria dela medio laguntza horien onuradun izateagatik ezarritako betebeharrak.

5. ARTIKULUA BALIABIDE EKONOMIKOAK

1.- Oinarri arautzaile hauen arabera emandako dirulaguntzak Berreskurapen eta Erresilientzia Mekanismoak ezartzeko 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuarena eta Kontseiluaren 2021/241 Erregelamenduan (EB) ezarritako Berreskurapen eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez finantzatuko dira. Europako funtsekin finantza daitezkeen dirulaguntza hauen izapidean eta emakidan Herri Administrazioa modernizatzeko eta Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko premiazko neurriak onartzeko abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuan aurreikusitakoa izango da aplikatzekoa, aplikagarri den gainerako araudiaren kalterik gabe.

2.- Helburu horiekin, **“International Connecting Talent BIODIBERTSITATEA 2024”** Mugikortasun Programara guztira BERROGEITA ZORTZI MILA (48.000,00€) EURORA arteko zenbateko bat bideratuko da, 8 hilabetera arteko iraupena duten ikerketa-proiektuak barneratuko dituzten 3 proiektura arte finantzatze aldera.

3.- Donostiako Udalak Mugikortasun Programa honetara bideratutako zenbatekoa edo finantzatzeko gehieneko Proiektu kopurua aldatzeko eskubidea gordetzen du. Kasu horretan, publizitatea eta interesa izan dezaketen pertsona guztiek haren berri izatea bermatzeko beharrezkoak diren jakinarazpen eta iragarkiak egingo ditu.

6. ARTIKULUA PERTSONA ONURADUNAK

1.- Laguntzaren pertsona onuradun izaera izango du laguntza eragin zuen jarduera burutuko duen pertsona fisiko orok edo laguntza ematea legitimatzen duen egoeran dagoenak, betiere, Oinarri hauetan jasotzen diren betekizun guztiak betetzen baditu.

2.- Ezingo dira dirulaguntza hauen onuradun izan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 13.2 artikuluan aurreikusitako inguruabarretan daudenak

(EAO, 2003ko azaroaren 18koa).

Horrenbestez, ezingo zaie laguntza eman, besteak beste, inguruabar hauetakoren batean dauden pertsoneri:

- Epai irmoz dirulaguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzeko zigorrera kondenatuak izatea edo prebarikazio, eroskeria, ondasun publikoak bidegabe eralgitze, eragimen-trafiko, iruzur eta legearen aurkako ordainarazpenen ondoriozko delituengatik edo hirigintza-delituengatik.
- Indarreko xedapenek zerga-betebeharrei eta Gizarte Segurantzarekin lotuei dagokienez ezarritako betebeharrak ez betetzea.
- Ebazpen irmoz dirulaguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzera zigortuak izatea, edo horretarako gaitasunik gabe uzteko legezko debekuren batean egotea. sexu-diskriminazioagatik zigortuta daudenak barne, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen testuategina onartzen duena) 23.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, eta haien onuradun ezin izango dira izan pertsona fisikoak edo pertsona onuradunak sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio-zehapena edo zehapen penala jaso dutenak dagokion zehapenean ezarritako aldian.
- Diruz lagundutako jarduera sexuaren ondorioz edo martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren (1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testuategina onartzen duena) 3.1. artikuluan jasotzen diren diskriminazio anitzeko faktoreengatik diskriminatzailea izateagatik, eta ezingo dira onuradun izan pertsona fisikoak, baldin eta pertsona onuraduna administrazio edo zigor zehapena badu sexuaren ondoriozko diskriminazioa gauzatzeagatik edo emakume emakumeen eta gizonen berdintasunerako araudia ez betetzeagatik dagokion zehapenean ezarritako epealdian.
- Donostiako Udalarekin edota Donostiako Sustapenarekin zorrak izatea.
- Aldez aurretik onartutako laguntzen itzulera, osorik edo zati batean, egiteke izatea, itzultzeko kopuruaren ordainketa egin dela egiaztatu bitartean.

Halaber, ez zaie laguntzarik emango ebazpen irmoz dirulaguntzak edota laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzera zigortuak izan diren edo horretarako gaitasunik gabe uzteko legezko debekuren batean dauden pertsoneri, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko azken seigarren xedapenean ezartzen denaren arabera sexuaren ondoriozko diskriminazioa gauzatzeagatik zigortuak izan direnei barne.

7. ARTIKULUA PERTSONA ONURADUNEK DEIALDI HONETAN PARTE HARTZEKO BETE BEHAR DITUZTEN BETEKIZUNAK

1.- Hauek dira pertsona onuradunek deialdian parte hartzeko bete behar dituzten betekizunak:

- a) Diplomatura, lizentziatura, graduko edota goi mailako lanbide heziketako titulazioa izatea, Donostiako Sustapenak proiektu bakoitzerako zehazten duenaren arabera.
- b) Deialdiaren urtean, 30 urteko adina beteta ez izatea.
- c) Donostian etenik gabe inskribatzea 2023ko urtarrilaren 1etik, gutxienez, edo aurreko atalean a) aipatzen diren ikasketak Donostiako udalarekin ordezkari eta edo harremana duen zentro batean egin izana, betiere pertsona Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) herri batean erroldatuta dagoenean.
- d) Kasu guztietan ingeles maila altua izatea (C1) (eta jomuga-herrialdeko hizkuntzakoak beharrezkotzat jotzen denean eta kasu bakoitzean dagokion Proiektuaren arabera. Horretarako, aipatu maila egiaztatzeko dagokion Ziurtagiria eskatuko da edo pertsona eskatzailearen ezagutza eta maila erabakitzeko ahozko edota idatzizko frogak egingo da.
- e) Egonaldia egingo den enpresa edo erakundeak eskatzen duen profilerak egokitzea.
- f) Langabezian egotea eta enplegu-eskatzaile modura inskribatuta egotea Lanbiden (Euskal Enplegu Zerbitzua) programa hasten den unean. Inskripzio-data bekaren hasiera-data baino lehenagokoa izango da. Langabetuak ez dira egon behar, beka hasi aurretik, Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean langile modura alta egoeran, ezta Langile Autonomoen Araubide berezian ere.

2.- Donostiako Sustapenak, kudeaketan parte hartzen duen Erakunde Kudeatzaile den aldetik, oinarri hauetan ezarritako betekizunak betetzen direla bermatzeko beharrezkotzat jotzen duen informazioa eskatu eta ekarpenak egiteko eskubidea gordetzen du.

8. ARTIKULUA JASOTZEN DIREN KONTZEPTUAK ETA LAGUNTZAREN ZENBATEKOA

1.- Honatx programa honetan jasotzen diren jarduerak eta kontzeptuak:

- a) Pertsona onuradun guztientzako Informazio/Prestakuntza jardunaldi bat. Jardunaldiaren edukia Donostia Sustapenak/Donostiako Udalak zehaztuko du eta praktikak hasi aurretik egingo da.
- b) **8 hilabeteko iraupena** izango duen ikerketa-proiektu bat, atzerrian, **nazioarteko erakunde batean, egiteko 6 hilabetera** arteko egonaldi batekin eta, ondoren, Artikutzako natura-ingurunearekin lotutako proiektu batean tokiko erakunde batean, egiteko 2 hilabetera arteko beste egonaldi batekin osatzen dena.
- c) **HAMASEI MILA (16.000,00€) EUROKO zuzkidura ekonomiko bat proiektuak irauten dituen 8 hilabeteetarako, hilean 2.000 euro** gordinetako zenbatekoaren

baliokide dena, gastu hauek estaltzeko: jomuga-herrialdera joatea, mantenu-ordaina, alojamendua; eta egonaldian zehar ordaindu beharreko gastuak estaltzeko. Zuzkidura ekonomiko kontzeptuan ordainduko diren kopuruak unea bakoitzean aplikagarri eta indarrekoak diren PFEZ zergaren atxikipenetara eta Gizarte Segurantzako kuotetara lotuta egongo dira.

d **Gaixotasun- eta istripu-arriskuen estaldura**, zein hirugarrenen aurreko erantzukizun zibileko gastuena, zeinaren aseguruia Donostia sustapenak sinatu eta ordainduko duen.

e Gizarte Segurantzarako kotizazioa, kasu bakoitzean dagokion Kotizazio Erregimenean.

f Sarbidea **Connecting Talent Komunitatera**.

2.- Edozein kasutan, ezinbestekoa izango da pertsona onuradunak Donostiako Sustapenak ezarritako guztiak betetzea zuzkidura ekonomikoa ordaintzeko.

9. ARTIKULUA BATERAGARRITASUNA BESTE LAGUNTZAK EDO DIRULAGUNTZA BATZUEKIN ETA FINANTZAZIO BIKOITZIK EZ IZATEA

1.- Oinarri hauetan araututako laguntzak bateragarri izango dira xede berdinarekin emandako bestelako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein Administrazio edo erakundetik, publiko nahiz pribatutik, eratorriak. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 Erregelamenduko 9. artikuluekin bat etorriz, Berreskurapen eta Erresilientzia Mekanismoak finantzatzeko inbertsio-proiektuek laguntza jaso dezakete Europar Batasuneko beste programa edo tresna batzuetatik, betiere, laguntza horrek ez badu estaltzen programa honetako dirulaguntzak dagoeneko finantzatzen duen kostu bera. Muga horretara iritsiz gero, deialdi honetan emandako laguntza soberakinaren zenbatekoan murriztuko da.

2.- Pertsona onuradunak organo emaileari diruz lagun daitezkeen programak finantzatzeko jasotako funts guztien berri eman beharko dio, Batasunetik etorriak izan zein bestelakoak, betiere, finantzazio bikoitzaren prebentziorako printzipioa errespetatuz. Jakinarazpen horretan emakidari edo ukoari dagozkion egiaztagiriak atxiki beharko ditu.

3.- Edozein modutan, indarreko legeriaren arabera egokitu ahal diren Gizarte Segurantzako kuotetan aplikatzeko hobari edo murrizketekin bateragarriak izango lirateke.

10. ARTIKULUA ESKAERAK ETA AURKEZTEKO DOKUMENTAZIOA.

1.- Eskaerak aurkezteko epea Oinarri hauen iragarkia Dirulaguntzen Datu Base Nazonalean argitaratu eta ondoren horien laburpen bat Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta deialdia itxi artekoa, 2024ko martxoak 1 izango da.

2.- Eskaerak telematikoki egiten dira Donostiako Sustapenaren webgunetik: (www.fomentosansebastian.eus).

Edozein informazio edo kontsulta 943 482800 telefono-zenbakian edo becas_fss@donostia.eus helbide elektronikoa jasoko da, gai modura honako hau ipinita: “**International Connecting Talent BIODIVERSIDAD 2024**” Mugikortasun Programa.

Hautatutako proiektuak modu telematikoan argitaratuko dira www.fomentosansebastian.eus webgunearen bidez. Bertan estaltzea proposatutako proiektu kopurua, garatzeko ezaugarriak zein eskaerak formalizatzeko epeak jasoko dira.

3.- Dirulaguntzaren eskaera aurkezteak berekin ekarriko du pertsona eskatzaileak baimena ematea organo emaileak jaso dezan edo Udaletxeak (Organo emaileak eskaera egiteko baimena ez badu) Foru Ogasunaren edo Udal Bilketaren aldetik eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorren aldetik igortzeko ziurtagiriak Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 23.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, zerga-betebeharrak nahiz Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatu nahiz Programan interesatuta dauden pertsonen Ziurtagiria edo errolda-datuak eskuratze aldera.

Ziurtagiri horiek baliozkoak izango dira 6 hilabeteko epez igorpen-datatik zenbatzen hasita. Diruz lagun daitezkeen zenbatekoak eskudirutan ordaintzeko unerako sei hilabete baino gehiago igaro balira, organo emaileak beste ziurtagiri telematiko bat eskuratuko du zuzenean.

Dirulaguntzaren eskaera eta ordainketa ezberdinak egiteko unean Udal Bilketaren, Foru Ogasunaren edota Gizarte Segurantzaren betebeharrak betetzen ez dituzten pertsona onuradunei, 10 eguneko epea emango zaie inguruabar hori jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita aipatutakoak betetzen dituztela egiaztatzeko.

4.- Pertsona eskatzaileak berriaz uka dezake Donostia Sustapenak datu horiek behatzea, bere aurkatzearen arrazoiak justifikatuz (Datuen Babeserako 2016/679 Erregelamenduko (EB) 21. artikulua) eta, hala badagokio, dagozkion ziurtagiriak aurkeztuz:

- Laguntzaren eskatzailea den pertsonak zerga-betebeharrak betetzen dituela egiaztatzeko dokumentazioa.
- Donostiako Udalaren ziurtagiria, laguntzaren eskatzaileak harekin zorrik ez duela egiaztatzekoa.

- Errolda-ziurtagiria.

4.- Webgunean eskaerak egiteko dagoen inprimakiaren arabera egindako eskaerekin dokumentazio hau gaineratu behar da derrigorrez

1. MODALITATEA: “International Connecting Talent-Jomugak”

- a Interesatzen den proiektuaren eskaera Donostiako Sustapenaren webgunetik.
- b Curriculum vitae ingelesez eta gaztelaniaz.
- c Eskatzen den titulazioa eta, hala badagokio, dagokion homologazioa izatearen egiaztagiriak, eskumeneko instantziak igorrita.
- d Ingeles hizkuntza-ziurtagiria, aurreko atalean adierazitako betekizuna egiaztatzea. Horretarako, aipatu maila egiaztatze dagokion Ziurtagiria eskatuko da edo pertsona eskatzailearen ezagutzak erabakitzeko ahozko edota idatzizko froga egingo da.
- e Jaiotze-data egiaztatze dokumentazioa (NAN, jaiotza-agiria, edo hori egiaztatzen duen beste edozein).
- f Pertsona erroldatuta dagoen EAEko herriko Udalak igorritako errolda-ziurtagiria.
- g Pertsona eskatzailearen adierazpen arduratsua Dokumentu hori 2. eranskin modura atxikitzen da oinarri hauetan eta webgunean eskuragarri izango da deskargatzeko.
- i Eskaeraren xede den proiektuari buruzko motibazio-gutuna (ingelesez), alderdi hauek jasoz: egonaldia garatuko den jomugaren identifikazioa, deialdi honen esparruan gara litekeen jarduera, horren justifikazioa eta hura Artikutzarako eta Artikutza eta Donostiarako aplikatzeko aukera barne.

Eskaera egiten denean webgunean indarrean dauden proiektuen artean bakar bat hautatu beharko da. Proiektu horretarako hautatua izan ez bada, erakundeak pertsona eskatzaileari antzeko ezaugarriak dituen beste proiektu bat esleitu ahal izango dio.

2. MODALITATEA: “Zure proiektua garatuz”

- a “Zure proiektua garatuz” modalitatean proiektuan parte hartzeko esakera, Donostiako Sustapenaren webgunetik.
- b Curriculum vitae ingelesez eta gaztelaniaz.
- c Eskatzen den titulazioa eta, hala badagokio, dagokion homologazioa izatearen egiaztagiriak, eskumeneko instantziak igorrita.
- d Ingeles hizkuntza-ziurtagiria, aurreko atalean adierazitako betekizuna egiaztatzea. Horretarako, aipatu maila egiaztatze dagokion Ziurtagiria eskatuko da edo pertsona eskatzailearen ezagutzak erabakitzeko ahozko edota idatzizko froga egingo da.
- e Jaiotze-data egiaztatze dokumentazioa (NAN, jaiotza-agiria, edo hori egiaztatzen duen beste edozein).
- f Pertsona erroldatuta dagoen EAEko herriko Udalak igorritako errolda-ziurtagiria.

- g Pertsona eskatzailearen adierazpen arduratsua: Dokumentu hori 2. eranskin modura atxikitzen da oinarri hauetan eta Donostiako Sustapenaren webgunean eskuragarri izango da deskargatzeko.
- i Eskaeraren xede den proiektuari buruzko justifikazio-memoria(ingelesez), alderdi hauek jasoz: egonaldia garatuko den jomugaren identifikazioa, deialdi honen esparruan garatzeko jarduera, horren justifikazioa eta hura Artikutzarako eta Artikutza eta Donostiarako aplikatzeko aukera barne eta horren justifikazioa, eta jomugako erakundearen berriazko onarpena (“Application Form Proyecto” izeneko 1. eranskina).

Bi modalitate horietako edozeinetan aurkezteko dokumentazioa:

- a Pertsona onuradunaren egiazko titulartasunaren identifikazioa, NAN agiria, Pasaporte edo IFZ zenbakia helaraziz. Gehigarri modura, identifikazio hori Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko maiatzaren 20ko 2015/849 Zuzentarauko (EB) 3. Artikuluko 6. puntuan zehaztutako moduan egingo da, irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduko 10. artikuluan Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 Erregelamenduko (EB) 22. artikuluari dagokionez ezartzen den eran. (5. Eranskina)

Edozein kasutan, instrukzio-organoa gaitzen da programan parte hartzen duten pertsonen beren egiazko titulartasuna eskatzeko, betiere, Zerga Administrazioako Estatuko Agentziak ez badu informazio hori eta dagokion bandera beltzarekin horrela adierazi badio. Informazio hori instrukzio-organoari helarazteko 5 egun balioduneko epea izango da informazioaren eskaera egiten denetik. Informazio hori adierazitako epean ez aurkeztea prozeduratik kanporatzeko arrazoia izango da.

- b «Kalte adierazgarririk ez eragiteko» printzipioa (principio «do not significant harm – DNSH») errespetatzearen konpromisoari buruzko adierazpen arduratsua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 Erregelamenduko (EB) 2. Artikuluko 6) atalean adierazten den eran, eta klima-etiketa errespetatzekoa (035 etiketa, % 100eko klima-ekarpen batekin: Klima-aldaketara egokitu eta klimarekin lotutako arriskuak prebenitu eta kudeatzeko neurriak: uholdeak -sentsibilizazio-ekintzak, babes zibila, hondamendiak kudeatzeko sistema eta azpiegiturak eta ekosistema-ikus puntuak barne-, Ministroen Kontseiluak 2021eko apirilaren 27an onartutako Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren aurreikusen denarekin bat etorriz, pertsona eskatzaileak behar bezala beteta (2. Eranskina)
- c Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan eskagarri diren betebeharrak guztiak betetzearen konpromisoari buruzko adierazpen arduratsua. (4. eranskina).

- d Administrazioz kanpoko pertsonaren Interes Gatazkarik Ez izatearen Adierazpena (IGEA) (7. eranskina)
- e Deialdi honetako 4. artikuluko 2. puntuan jasotzen diren iruzurren aurkako planak baldintzarik eta erresebarik gabe onartzearen adierazpena. (6. Eranskina)
- f Eragindako Herri Administrazioen artean datuak laga eta tratatzea onartzearen adierazpena auditoretza eta funtsen erabilera eta kontrolari so, Europar Batasunaren finantza-interesen babesari buruzko 2021/241 Erregelamenduko 22.2 d) artikuluan eta Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema konfiguratzeko duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduko 8. artikuluan adierazitakoarekin bat etorritik. (3. Eranskina)
- g Batzordeak, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak (IBEB), Europako Kontuen Auzitegiak, Europako Fiskaltzak eta eskumeneko agintari nazionalak eskuratzeko berriazko baimena Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 Erregelamenduko (EB) 22.2.e) artikuluan eta Finantza Erregelamenduko 129. artikuluan (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 Erregelamendua (EB, Euratom)) xedatzen denarekin lotuta beren eskumenak gauzatzeko. (2. Eranskina)

Aurreko ataletan aipatzen den dokumentaziorako dagozkion Eranskinak helaraziko da eskaerarekin batera.

5.- Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legearekin bat etorritik pertsona interesdunek eskubidea dute dagoeneko Administrazio jarduleak dituen edo beste edozein Administrazioak eratutako dokumentuak ez aurkezteko.

6.- Pertsona onuradunak egindako adierazpen arduratsu guztien egiazkotasunaren gainean erantzukizun osoa hartzen du beregain, eta baita aurkeztutako gainerako dokumentazioaren gainekoa ere, informazio edo dokumenturen bat errealtatearekin bat ez badator edo horiek egiaztatzea ezinezkoa bada, eskaera ezetsi egin daitekeela ulertuz.

7.- Donostiako Sustapenak oinarri hauek betetzen direla ziurtatzeko beharrezkoa den informazio oro eskatu ahal izango du.

Dokumentazioa aurkezteko epeak betetzen ez badira, edo oinarri hauetan aurreikusitako beste edozein betekizun urratzen bada, eskaera ezestea gerta liteke.

11. ARTIKULUA ESKAERETAKO AKATSAK KONPONTZEA

Donostiako Sustapenak dokumentazio guztia berrikusi ondoren, eskaera atal guztietan ez dagoela beteta edo dokumenturen bat falta dela ikusten bada, pertsona eskatzaileari

dei egingo zaio akatsa konpon dezan edo beharrezkoak diren dokumentuak gainera ditzan hamar egun balioduneko epean, horrela ez egitekotan, bere eskaera bertan behera uzten duela ulertzen dela adierazita, eta prozedura artxibatu egingo da 39/2015 Legeko 68. artikuluan adierazten den eran emango den ebazpenaren ondotik.

Akatsa konpontzeko eskatutako dokumentazioa modu telematikoa aurkeztuko da. Ez da posta elektronikoz aurkeztutako justifikaziorik onartuko, Donostiako Sustapenak berriaz baimendu ezean.

Donostiako Sustapenak azalpenak eskatu ahal izango ditu komenigarritzat jotzen badu.

12. ARTIKULUA INSTRUKZIO, BALIOESPEN ETA EBAZPENERAKO ESKUMENENKO ORGANOK

1.- Beka hauen instrukzio-organoa izango da Donostiako Sustapena, Udaren Erakunde Kolaboratzaile den aldetik.

Instrukzio-organoak administrazio-betekizunak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko eta diruz lagun daitezkeen programak balioesteko beharrezkotzat jotzen dituen jarduketak burutuko ditu ofizioz.

2.- Eskaerak Balioespen Batzorde batek aztertuko ditu. Batzorde horren osieran kontuan izango da Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 3.9 artikulua. Balioespen Batzordea osatuko duten pertsonen gutxienez % 40 emakumeak izango dira, hori ezinezkoa izan ezean, justifikatu egin beharko dena. Honako hauek osatuko duten Balioespen Batzordea:

- Presidentetza: Donostia Sustapeneko Berrikuntza eta Lehiakortasuna Arduraduna eta Ingurumen Osasun eta Jasangarritasun Zerbitzuaren Arduraduna (Donostiako Udala)
- Batzarkideak: Berrikuntza eta Lehiakortasun Teknikaria eta Donostiako Udaleko Teknikaria
- Idazkaritza: Berrikuntza eta Lehiakortasun Teknikaria

Horretarako eraturako Balioespen Batzordeak egindako ebaluazioaren emaitza zehazteko txostena igorriko du. Entzunaldiaren izapidearen muzin egingo zaio ebazpena emateko garaian pertsona onuradunek aurkeztutako bestelako jazoera eta dokumentuak kontuan ez izatean.

Balioespen Batzordeak hirugarren erakundeen lankidetzan izan dezake proiektuak balioetsi eta hautatzeko prozesuan (EHU, BC3, ...)

3.- Eskumeneko organoak, Balioespen Batzordeak hala proposatuta, dagokion ebazpena emango du beranduenez deialdiaren laburpena GAO aldizkarian argitaratu

eta 6 hilabeteko epean. Gehienezko epea igaro ondoren esanbidezko ebazpenik ez badago, pertsona onuradunek beren eskaera ezetsi egin dela ulertu ahal izango dute.

Onarpena edo ukoa Tokiko Gobernu Batzarraren esanbidezko ebazpen arrazoitu bidez egingo da, Ekonomiako, Bertako Enplegurako eta Ekologiako, Zinegotzi Ordezkaritari delegatzeko aukeraren kalterik gabe.

Onarpenaren ebazpenean beka ematen zaien pertsona eskatzaileak adierazi beharko dira gainerako eskaeren berriazko ezespenearekin batera.

Onarpena edo ukoa modu indibidualean jakinaraziko zaie pertsona eskatzaileei Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 41. artikuluan aurreikusten denarekin bat etorritik.

4.-Prozeduraren instrukzioan esku-hartzen duten pertsonen zein Balioespen Batzordeko eta ebazpena emateko eskumeneko organoko kide diren pertsonen Gatazkarik Ez izatearen Adierazpena (IGEA) sinatu beharko dute, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzen duten prozeduretan interes-gatazkaren arriskua sistematikoki aztertzeari buruzko urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduan adierazita bezala erkatu beharko dena.

13. ARTIKULUA HAUTAKETA- ETA BALIOESPEN-IRIZPIDEAK

1.- Edozein kasutan, beken prozesu honetan, hautagaitzak aurkeztean, frogatzen edo elkarrizketak egitean eta prestakuntza-ekintzak burutzen dituzten beken pertsona onuradunen azken hautaketan emakumeen eta gizonen arteko tratua edo aukera berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa aplikatzen dela bermatuko da.

2.- Deialdiaren prozesuan eta ondoren beken programa gauzatzean baliatzen den dokumentazio, publizitate, irudi edo material orotan lengoaiaren erabilera ez sexista baliatu beharko da, emakumeen irudi diskriminatzailea edo estereotipo sexistak ekidin beharko dira eta berdintasun, presentzia orekatu, aniztasun, erantzunkidetasun eta genero aldetiko rol eta identitateen aniztasunaren balioak dituen irudia bat sustatu beharko da.

3.- Aurkeztutako eskaerak ebazteko proposamena eratzean hautaketa- eta balioespen-irizpide hauek izango dira kontuan, eta baita modalitate bakoitzerako prozesuan ere:

1. MODALITATEA: “International Connecting Talent-Jomugak”

Esleipena norgehiagoka erregimenean egongo da eskatzaileen profilak alderatu eta proiektu bakoitzera zein heinetan egokitzen diren balioetsiz, haien arteko erlazio bat finkatu asmoz. Horretarako, hautaketa-prozesu bat egingo da, hainbat fase izango dituen. Fase horietako bakoitza gainditzeko ez duten hautagaiak ez dira hurrengo fasera

igaroko eta, horrenbestez, beren hautagaitza ezetsi egingo da. Hots, fase bakoitza baztertzaileria izango da. Prozesuko faseak jarraian adierazten direnak izango dira:

1.- Betekizunak egiaztatzea: helarazitako dokumentazioa berrikusiz, (Curriculum Vitae eta motibazio-gutuna aztertu eta titulazio eta prestakuntza osagarria balioetsiz) atzerrian burutzeko proiektu baterako hautagaitzat hartzeko betekizunak betetzen diren egiaztatuko da.

Betekizun horiek betetzen ez badira, ezingo du programan parte hartu.

2.- Ingeles froga dagozkion ziurtagiriek (Ingeleseko Erakunde Ofizial batek emandako C1 titulua) ingeles maila egiaztatzen ez duten pertsonen kasuan, eta Programan parte hartu nahi duten pertsonen ingeles maila egiaztatze aldera, derrigorrez egiteko azterketa bat egingo da, ahozko frog bat eta idatzizko frog bat izango dituen. Sustapenaren web-orrialdean jakinaraziko da frog zein pertsonak gainditu duten.

Gainerako hizkuntzen kasuan ez da maila egiaztatzeko frogarik egingo, eta horien ezagutza balioetsi ahal izateko dagozkion tituluak aurkeztu beharko dira pertsona hautagaiaren gainerako dokumentazioarekin batera elkarrizketetan balioets daitezten.

3.- Pertsona hautagaiaren profilaren egokitzapen maila balioestea: Balioespen Batzordeak edo horretarako hauta daitekeen beste edozein erakunde kolaboratzailek (besteak beste, EHU, BC3) egindako elkarrizketa bat edo gehiagorekin balioetsiko da pertsona hautagaiaren profila proiektuan burutuko den atzerriko enpresa edo erakundeak eskatzen duenera zein heinetan egokitzen den. Elkarrizketan zehar, pertsona eskatzailearen jatorrizko dokumentazioa berrikusiko da.

4.- Jomugako erakundearen azken balioespena: Jomugako erakundeak egindako azken elkarrizketarekin edo hark Curriculum balioetsita, hura izango baita pertsona eskatzaileen inguruko azken erabakia hartuko duena, eta aitzin-hautetsiekin azken elkarrizketa bat egitea eskatu ahal izango du.

Hautaketa-prozesua amaituta, web-orrialdearen bidez prozesuko fase guztiak gainditu dituzten pertsonen zerrenda eta eskatutako proiektuaren arabera eskuratutako azken puntuazioa argitaratuko da, proiektu bakoitza zer pertsonari esleituko zaion adierazita. Halaber, Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuko da, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 18. artikuluan adierazitako baldintzetan.

Ebazpenak pertsona eskatzaileei jakinaraziko zaizkie eta pertsona onuradunen zerrendak argitaratuko dira. Bestalde, programa honen kasuan, pertsona onuradunen zerrenda Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1303/2013 Erregelamenduko (EB) 115. artikuluko 2. atalean jasotzen den zerrenda publikora gaineratuko da.

Deialdi honekin lotutako jakinarazpenak bitarteko elektronikoak erabiliz edo telefonoz egingo dira, pertsona eskatzaileak dagokion eskaeran adierazitako helbide elektronikoan eta telefono-zenbakian.

Onuradun ateratzen diren pertsonak taldeko informazio-saio baterako deituko dira. Hor azalduko zaizkie Programa, erakunde edota proiektuaren ezaugarriak, egonaldia zein herrialdetan egingo duten eta proiektuaren inguruabarrak, programaren funtzionamendu onerako beharrezkoak diren bestelako xehetasunekin batera.

2. modalitatea: “Zure proiektua garatuz”

Esleipena norgehiagoka erregimenean egongo da eskatzaileen profilak alderatu eta proiektu bakoitzera zein heinetan egokitzen diren balioetsiz, haien arteko erlazio bat finkatu asmoz. Horretarako, hautaketa-prozesu bat egingo da eta, parte hartzeko, pertsona eskatzaileek jarraian adierazten diren betekizunak eta balioespen-irizpideak bete beharko dituzte.

1.- Aurkeztutako proiektuaren balioespena

Proiektua auzitegiak balioetsiko du **Nazioarteko proiektua deskribatu eta justifikatzeko memorian** jasotako informazioa kontuan izanik, bertan adierazi beharko dira jomugaren identifikazioa, deialdi honen esparruan garatzeko jarduera eta haren justifikazioa, eta jomugako erakundeak konpromiso-gutun batekin emandako berariazko onarpenera (“Application Form Proyecto” izeneko 1. eranskina).

Oinarriekin bat etorritik aurkeztutako proiektu guztiak 100 puntuko gehienezko puntuazio batekin ebaluatuko dira.

Proiektuak ebaluatzeko balioespen-irizpide hauek hartuko dira kontuan:

1. Proiektuaren balioespena	
1.1 Proposamenaren diseinua eta kalitatea	40
1.2. Berrikuntzarako ahalmena eta ematen duen balioa	20
1.3. Burutzeko lanketak, bat-etortzea eta jomugako erakundearen konpromisoa	20
1.4. Profilaren egokitzapena proiektuarekiko.	20
PROIEKTUAREN PUNTUAZIOA GUZTIRA	100

Gutxienez 75 puntu eskuratzen ez dituzten proiektuen eskaerak ez dira kontuan izango.

Donostiako Sustapena gutxienerako puntuazio hori gainditu ez arren, gutxienez 65 puntu lortzen dituzten proiektuetako eskatzaileekin harremanetan jarri ahal izango da, proiektuaren ulermen egokia erkatze aldera.

2.- Betekizunen egiaztapena eta eskatzailearen profilaren balioespena:

Pertsona eskatzaileak eskatzen diren betekizunak betetzen dituela egiaztatzeko helarazitako dokumentazioa berrikusi, Curriculum Vitaea aztertu, motibazio-gutuna begiratu eta titulazioa eta prestakuntza osagarria balioetsiko da. Hizkuntzaren kasuan, eta maila egiaztatzeko Ziurtagirik aurkezten ez bada, ahozko eta idatzizko froga bat egingo da pertsonaren ezagutza maila zein den erabakitzeko.

Pertsona hautagaiaren egokitzapen maila balioesteko, osagarri modura, balioespen batzordeak zein horretarako hautatuko diren erakunde kolaboratzaileek elkarrizketa bat egingo dute, pertsonaren profila proiektura zein heinetan egokitzen den balioetsi eta aurkeztutako proiektua egiaztatze aldera. Elkarrizketan zehar, pertsona eskatzailearen jatorrizko dokumentazioa berrikusiko da.

Pertsona eskatzaileak betekizunak betetzen ez baditu edota bere profila egokia ez dela aintzatesten bada, bere eskaera ezetsi egingo da.

Ebazpenak pertsona eskatzaileei jakinaraziko zaizkie eta pertsona onuradunen zerrendak argitaratuko dira. Bestalde, programa honen kasuan, pertsona onuradunen zerrenda Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1303/2013 Erregelamenduko (EB) 115. artikuluko 2. atalean jasotzen den zerrenda publikora gaineratuko da. Halaber, Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuko da, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 18. artikuluan adierazitako baldintzetan.

Deialdi honekin lotutako jakinarazpenak bitarteko elektronikoak erabiliz edo telefonoz egingo dira, pertsona eskatzaileak dagokion eskaeran adierazitako helbide elektronikoan eta telefono-zenbakian.

14. ARTIKULUA FORMALIZAZIOA ETA AZPIKONTRATAZIOA

1.- Nazioarteko egonaldia formalizatu ahal izateko, laguntzaren onuradun atera den pertsonak, beranduenez irten baino hilabete lehenago (argudiatutako arrazoiak direla medio, Donostiako Sustapenak berariaz beste epe bat onartu ezean), dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

- a. Atzerrira irten aurreko egunez langabezian egotearen eta Lanbiden (Euskal Enplegu Zerbitzua) enplegu-eskatzaile modura inskribatuta egotearen egiaztapena.
- b. Donostia Sustapenaren eta programan parte hartzen duen pertsonaren artean sinatzen den lankidetzeta-hitzarmenaren sinadura.
- c. Sustapenak alta emango dio pertsona onuradunari Gizarte Segurantzari.
- d. Ordainketak formalizatu ahal izateko banku-datuaren entrega.

2.- Pertsona onuraduna Donostia Sustapenak egindako Informazio/Prestakuntza Jardunaldira bertaratu beharko da derrigorrez. Bestela, laguntza ezingo da formalizatu.

3.- Atzerriko egonaldia hasteko mugaeguna **2024ko apirilak 1a** izango da, argudiatutako arrazoiak direla medio, Donostiako Sustapenak berariaz beste egun bat onartu ezean.

4.- Programan parte hartzen duen pertsonak Donostiako erakundeetan egonaldia atzerrian bere egonaldia amaitu bezain pronto hasiko du, gehienez 15 eguneko epea izango duelarik atzerriko egonaldia amaitu eta Donostiako jarduna hasteko, argudiatutako arrazoiak direla medio, Donostiako Sustapenak berariaz beste egun bat onartu ezean

5.- Diruz lagundutako jardueraren izaera kontuan izanik, ezingo da hirugarrenekin azpikontraturik egin.

15. ARTIKULUA JUSTIFIKAZIOA ETA ORDAINKETA

1.- Laguntza hiru ordainketa eginez ordainduko da:

Lehendabiziko ordainketa (% 50) Beka formalizatzeko helarazitako dokumentazioa zuzena dela eta pertsona onuraduna Informazio/Prestakuntza Jardunaldira bertaratu dela egiaztatuta ondoren egingo da.

Bigarren ordainketa (% 40) egonaldiaren denboraren erdia igarota egingo da, aldez aurretik Donostia Sustapenak pertsona onuradunak bi txosten hauek helarazi dituela egiaztatuta ondoren:

- Egonaldiko lehenabiziko hilabeteetan, atzerriko harrera-erakundearekin adostutako (5.) **Laneko Plan** bat.
- Egonaldiaren denboraren erdia igarota, proiektuaren egikaritze-maila eta egonaldia amaitu bitartean garatzeko jardueren plan bat zehazteko (6.) **Jarraipenerako txosten** bat. Beharrezkotzat jotzen bada, online bilkura bat antolatuko da garatutako lanak erkatzeko. Txostenek laburpen exekutibo bat barneratu beharko dute.

Balioespen batzordeak bi txostenak egokiak direla egiaztatuko du, eta hala bada bigarren ordainketa Jarraipenerako Txostena baliozkotu eta hurrengo 30 egunen barruan egingo du. Donostia Sustapenaren arabera txostenetako bat ez bada egokia, pertsona onuradunari jakinaraziko dio zuzen dezan, baliozkotu ahal izateko.

Hirugarren ordainketa bat eta likidazioa (% 10 datozkion atxikipean kenduta, gizarte segurantzaren bekadunaren kontura eta % 2 PFEZ kontzeptuan Sustapenak pertsona bekadunaren izenean ordainduko duena Gipuzkoako Foru Aldundiaren Foru

Ogasunean), behin egonaldia amaituta eta pertsona onuradunak epealdi osoan zehar garatutako jarduerak, proiektuaren emaitza eta atzerrian bizitako esperientziaren asebetetze-maila jasoko dituen **(7) Azken Txosten** bat entregatu ondoren. Donostiako Sustapenak, entregatu eta hurrengo hilabetean zehar, azken txostena ongi dagoela egiaztatu du eta, hala bada, hirugarren eta azken ordainketa egingo du. Beharrezkotzat jotzen bada, online bilkura bat antolatuko da garatutako lanak erkatzeko.

2.- Txosten horiek guztiak modu telematikoan aurkeztuko dira, Donostiako Sustapenaren webgunean erabilgarri dagoen aplikazioan. Ez da posta elektronikoz aurkeztutako justifikaziorik onartuko, Donostiako Sustapenak berariaz baimendu ezean.

16. ARTIKULUA JARRAIPENA, KONTROLA ETA EBALUAZIOA

1.- Pertsona onuradunak hauek egindako egiaztapenetara lotuta geratuko dira: Administrazio emaileak, dagozkion finantza-kontrolerako egindakoak, hala badagokio, Kontu-hartzailtza Orokorrak egindakoak eta Kontuen Auzitegiaren legerian aurreikusten direnak, eta Europako Komunitateetako Kontuen Batzorde eta Auzitegiak, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak, Auditoretza Bulego Nazionalak eta, dagokionean, Europako Fiskaltzak egin ditzaketenak.

2.- Edozein kasutan, oinarri hauetan araututako dirulaguntzak Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planerako ezartzen diren jarraipen, kontrol eta ebaluazioaren baitan egongo dira, informazioari, publizitateari, kontrolari, egiaztapenari, jarraipenari eta ebaluazioari buruzko betebeharrak espezifikotara eta barne araudian eta Europar Batasunean ezartzen diren gainerako betebeharrak lotuta egoteaz gain, betiere, Europar Batasuneko Berreskurapen eta Erresilientzia Mekanismoerako ezartzen badira eta berau aplikatzea derrigorrezkoa bada.

3.- Zehazki, Administrazio emaileak, Berreskurapen eta Erresilientzia Planaren esparruan erreformak eta inbertsio-proiektuak gauzatzera bideratutako neurriak dagokienez, datuen kategoria harmonizatuak jasoko dituzte formatu elektronikoan, funtsen auditoretza egin eta horien erabilera kontrolatze aldera, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 Erregelamenduko (EB) 22.2.d) artikuluan zehazten denarekin bat etorritik.

4.- Pertsona onuradunek egiaztagirak eta finantzazioarekin lotutako gainerako dokumentazioa formatu elektronikoan gorde beharko dute eragiketa egiten denetik bost urte epez, edo hiru urteko epez dirulaguntzaren zenbatekoa 60.000 eurotik beherakoa denean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 Erregelamenduko (EB, Euratom) 132. artikuluan («Reglamento Financiero») aurreikusten denari jarraikiz.

17. ARTIKULUA UKOA

1.- Programari uko egiteak berekin ekarriko du geratzen diren ordainketak ez egitea, eta ukora arte jasotako zenbatekoren bat itzultzeko betebeharra ekar dezake, ukoa pertsona onuradunak behar bezala egiaztatutako behartutako kasuen ondorioz gertatu ezean.

2.- Itzultzeko zenbatekoa kalkulatzeko egonaldirako aurreikusten den iraupen-epearen eta berau estaltzeko esleitutako zuzkidura ekonomikoaren artean dagoen erlazio proportzionala zehaztuko da, eta jasotako zenbatekoa egonaldian izandako epeari dagokiona baino handiagoa bada zuzkidura ematen duen erakundeari soberan jasotakoa itzuli beharko zaio.

3.- Behin beka hasita ukatuz gero, pertsona eskatzaileak ezingo du berriz ere programara aurkeztu, uko hori behartutako kasu baten ondoriozkoa izan ez bada.

18. ARTIKULUA EZ-BETETZEAREN ONDORIOZKO AMAIERA EDO AMAIERA BEHARTUA. ITZULTZEA ETA ZEHAPEN ARAUBIDEA

1.- Jasotako kopuruak itzuli egin beharko dira eta berandutza-interesaren eskakizuna bete dirulaguntza ordaintzen den egunetik itzultzearen egokitasuna adosten den egunera arte, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legeko Orokorrean eta hura garatzeko Erregelamenduan aurreikusten diren inguruabarren bat ematen denean, eta baita Oinarri hauetan jasotzen diren egoera espezifikoetan ere.

2.- Itzultzeko zenbatekoak zuzenbide publikoko sarreratzat hartuko dira, beraz, premiamendu-bidez eskatu ahal izango dira itzultze hori ez bada zehazten diren egunetan egiten.

3.- Pertsona onuradunak jasotako ekarpenaren kopuru guztiak itzuli beharko ditu Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharren gainean ez-betetze larria edota errepikatua egiten badu, edo programatutako egonaldia modu behartuan amaituz gero. Adierazgarri gisa, baina mugapenik gabe, ez-betetze larri edota errepikatu modura ulertuko da helarazitako dokumentazioa faltsutzea, kopia egitea, plagiatzea edota hirugarrenen eskubideak urratzea aurkeztutako proiektua aurkeztean. Ondorio berdinetarako, behartutako amaiera modura ulertuko da pertsona onuraduna proiektua garatzen ari den enpresatik diziplina-arrazoien ondorioz kanporatua izatea (berandu iristea, lanera ez joatea, adiskide edo arduradunak begirunerik gabe tratatzea, esleitutako lanketak ez betetzea, lanera alkohol edo drogen eraginpean bertaratzea, etab.).

4.- Halaber, itzultzeko arrazoi izango da, “Kalte adierazgarririk ez eragiteko” printzipioa eta klimarekin lotutako etiketatetik eratorritako betebeharrak urratzea (035 etiketa, % 100eko klima-ekarpen batekin: klima-aldaketara egokitu eta klimarekin lotutako arriskuak prebenitu eta kudeatzeko neurriak: uholdeak -sentsibilizazio-ekintzak, babes zibila, hondamendiak kudeatzeko sistema eta azpiegiturak eta ekosistema-ikuspuntuak barne).

5.- Itzultze-prozedura Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 41. artikuluan eta hurrengoetan zein hura garatzeko Erregelamenduaren 91. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusten denaren arabera garatuko da.

Itzultzea adosteko eskumeneko organoa Tokiko Gobernu Batzarra izango da, Ekologia, Osasun Publiko, Ekonomia Garapen eta Enplegu Zinegotzi Ordezkaritari delegatzeko aukeraren kalterik gabe.

6.- Halaber, aurrez itzultzeko aipatutako arrazoiren bat gertatuz gero, hala badagokio, ordaintzeke gera litezkeen kopuruak kobratzeko eskubidea galdu egingo da. Orobat, pertsona eskatzaileak ezingo izango du berriz ere programara aurkeztu.

7.- Arau-hauste eta zehapen arloan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 56. artikuluan eta hurrengoetan zein hura garatzeko xedapenetan adierazten dena beteko da. Zehapenak ezartzeko erabakiek amaiera emango diote administrazio-bideari.

19. ARTIKULUA PERTSONA ONURADUNEN BETEBEHARRAK

1. Pertsona onuradunek betebeharrak hauek baitaratuko dituzte:

- a Laguntzaren esleipena onartzea. Horren harira, emakida jakinarazten den egunetik 15 egun naturaleko epean hura ez bada berariaz eta idatziz ukatzen, behin betikoz onartuta geratzen dela ulertuko da.
- b Jomuga-herrialdean praktikak hasi aurretik Sustapenak emandako Informazio/Prestakuntza Jardunaldira bertaratzea.
- c Praktikak burutzen diren enpresa edo erakundeak agindutako lanketak burutzea aldeztu aurretik finkatu edo adostutako laneko planaren esparruan.
- d Praktiken garapenari buruz Donostia Sustapenak eskatzen dituen hiruhileko txostenak egin eta bidaltzea.
- e Donostia Sustapenak ezartzen dituen lanaren ebaluazioetan parte hartzea.
- f Ukatzuz gero, gehiegi jasotako zenbatekoak itzultzea, aurreko 17. eta 18. Artikuluetan adierazitakoarekin bat etorritik.
- g Donostia Sustapenak "International Connecting Talent BIODIBERTSITATEA" programarekin lotuta dei ditzakeen ekitaldi edo jardunaldietan parte hartzea.
 - h Pertsona onuradunen jomuga herrialde bakoitzak eskatutako dagozkion bisatu edo baimenak eskuratzearen baitan egongo da. Horri dagokionez, Covid-19 gaixotasunak eragindako osasun-krisiaren ondorioz eta pertsonen mugikortasunera begira maila nazionalen zein nazioartean dauden mugak kontuan izanik, Programa honetan parte hartzen duten pertsona guztiak jomuga-herrialdean bertara sartu edo bertatik ateratzeko zein bertan egonaldia egiteko ezarritako arau eta legezko betekizunak betetzeaz arduratuko dira eta horren gaineko konpromisoa hartuko dute.
 - i Jomuga-herrialdera iristean kontsulatuan edo enbaxadan erregistratzea egonaldiak irauten duen bitartean bere bizilekua finkatze aldera.

2. Halaber, pertsona onuradunek Europar Batasuneko Berreskurapen eta Erresilientzia Mekanismoaren finantzazioarekin lotutako betebeharrak berezi hauek bete beharko dituzte:

- a Ingurumenean Kalte adierazgarriak ez eragiteko printzipioa betetzen dela bermatzea klimarekin lotutako baldintzekin batera (035 etiketa, % 100eko klima-ekarpenei batekin: klima-aldaketara egokitu eta klimarekin lotutako arriskuak prebenitu eta kudeatzeko neurriak: uholdeak -sentsibilizazio-ekintzak, babes zibila, hondamendiak kudeatzeko sistema eta azpiegiturak eta ekosistema-ikusuntuak barne), Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean, Espainiako Berreskurapen eta Erresilientzia Planaren ebaluazioa onartzeari dagokion Kontseiluaren Exekuziorako Erabakian (Council Implementing Decision – CID), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 Erregelamenduan (EB), Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema konfiguratzeko duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduko 5. artikuluan eta hura garatzeko araudian aurreikusten denarekin bat etorriz, proiektuak diseinatu eta egikaritzeko fase guztietan eta modu indibidualean jarduketara bakoitzeko.
- b Interes-gatazkarik, iruzurrik eta ustelkeriarik ez egotea, eta dirulaguntza ematen duen Administrazioak eta haren Erakunde Kolaboratzaileak onartutako Iruzuraren aurkako Neurrien Plana baldintzarik eta erreserbarik gabe onartzea. Plan horretako xedapenak osorik onartu beharko dira erkidegoko, Estatuko eta Europako araudia zehaztasun osoz betez iruzurraren, ustelkeriaren eta interes-gatazken prebentzio, hautematen eta artezketari dagokionez, eta Europar Batasuneko finantza-interesen babesarekin lotuta horietako instituzioek egindako adierazpenei jarraikiz.
- c Europako Batzordeak, Iruzuraren Borrokarako Bulegoak (IBEB), Europako Kontuen Auzitegiak eta Europako Fiskaltzak ezarritako kontrolak onartzea, horretarako, organo horiek dirulaguntzari buruz eskatutako informazio guztia helaraziko litzazieke, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 Erregelamenduko 22.2.e) artikuluan adierazitako baldintzetan.
- d Batzordeari, IBEB bulegoari, Kontuen Auzitegiari eta, hala dagokionean, Europako Fiskaltzari Finantza Erregelamenduko 129. artikuluko 1. atalak aitortzen dizkien eskubideak erabil ditzatela berariaz onartzea eta ordaindutako funtsen azken hartzaile guztiak derrigortzea berreskurapen eta erresilientzia planean barneratzen diren erreforma eta inbertsio-proiektu guztiak aplikatzeko neurriei dagokienez, edo haren aplikazioan parte hartzen duten gainerako pertsona edo erakundeak, eta Batzordeari, IBEB bulegoari, Kontuen Auzitegiari eta, hala dagokionean, Europako Fiskaltzari Finantza Erregelamenduko 129. artikuluko 1. atalak aitortzen dizkien eskubideak erabil ditzatela berariaz onartzea, eta funtsen azken hartzaile guztiei antzeko betebeharrak ezartzea.

- e Jasotako funtsen aplikazioa justifikatzeko dokumentuak gorde eta mantentzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrolerako jarduketak egin daitezten horien gainean, bost urteko epez edo, finantzazioaren zenbatekoa gehienez 60.000 eurokoa bada, hiru urteko epez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 Erregelamenduko (EB, Euratom) 132. artikuluan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 Erregelamenduko (EB) 22.2.f) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.
- f Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema konfiguratzeko duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduko 9. artikuluan ezartzen den betebeharren jakinarazpenarekin betetzea. Zehazki, inbertsioak garatzeko jarduketan informazio eta komunikaziorako neurrietan (informazio-kartelak, plaka, inprimatutako argitalpenak eta argitalpen elektronikoak, ikus-entzunezko materiala, web-orrialdeak, iragarkiak eta prentsako gehigarriak, ziurtagiriak, etab.) logotipo hauek barneratu beharko dira: a) Europar Batasunaren ikurra. b) Europar Batasunaren ikurrarekin batera, "Europar Batasunak finantzatuta-Next Generation EU" esaldia gaineratu beharko da. c) Kontuan izango dira 821/2014 Exekuzio Erregelamenduko II. eranskinean ezarritako arau grafikoak eta kolore normalizatuak.
- g Beren identifikazio-datuak datu-base bakar batean gaineratzea, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 Erregelamenduko (EB) 22.2.d) artikuluan eta Eraldaketa eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema konfiguratzeko duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduko 8. artikuluan adierazitakoari jarraikiz.

20. ARTIKULUA DATU PERTSONALEN BABESA

1.- Datuak babesteko indarreko araudian xedatzen denarekin bat etorriz Oinarri hauetan arautzen diren laguntzen eskatzaileei jakinarazten zaie dagokion eskaerarekin emandako datu pertsonalak, zein laguntzak izapidetzean edota horiek onartuta laguntzak kudeatzean helarazitako beste edozein dokumentazio, Donostiako Udalak tratatzeko gaineratuko direla, Tratamenduaren Arduradun modura jardungo duena, eta Donostia Sustapenak kudeatuko ditu, tratamenduaren enkargatu modura jardungo duena. Tratamenduaren xedea eskaera kudeatu eta aipatu laguntzak izapidetzea izango da.

2.- Tratamenduaren zilegitasunaren oinarria Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduko (EB) 6.1.e) artikulua da, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena (DBEO): tratamendua ezinbestekoa da interes publikoari begira edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak baliatuz egindako misioa betetzeko. Euskadiko Tokiko Erakundearen apirilaren 7ko 2/2016 Legea; Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzeko apirilaren 2ko

7/85 Legea eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea.

3.- Oinarri hauetan edo eskaera egiteko dagozkion inprimakietan hala adierazten denean, datu pertsonalei buruz eskatzen den informazioa derrigorrez entregatzekoa izango da eta horiek ez helarazteak edo datu okerrak emanda helarazteak zure eskaera kudeatzea ezinezkoa izatea eragingo du.

4.- Datuak jaso ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen balizko erantzukizunak zehazteko beharrezkoa den denboraz gordeko dira.

5.- Oinarri hauetan arautzen diren laguntzen pertsona onuradunek helarazitako datu pertsonalak, hala badagokio, laguntza hauek finantzatzen laguntzen duten edota horien kudeaketan Donostiako Sustapenarekin kolaboratzen duten erakunde nazional edo nazioz haraindikoetara laga ahal izango dira, hori ezinbestekoa denean eta laguntzaren emakida kudeatzeko helburu bakararekin.

6.-Halaber, jakinarazten da laguntzak emateak berekin ekarriko duela pertsona onuraduna identifikatzeko datuak emandako laguntzaren zenbatekoarekin batera Donostiako Sustapenaren web-orrialdean zein Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuz komunikatu edo lagatzea.

7.-Eragindako pertsonen datuak eskuratu, arteztu eta ezabatzeko eskubideak zein datuak babesteko indarreko araudian jasotzen diren bestelako eskubideak erabili ahalko dituzte, dagokionean, Donostiako Udaleko Udalinfo Zerbitzuaren aurrean Donostiako Ijentea kaleko 1 zenbakian (20003 Donostia).

8.-Zure eskubideak baliatzean ez bazara behar bezala artatua izan, erreklamazio bat jarri ahal izango dugu Datuak Babesteko Euskal Agentziaren aurrean. Helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3. Solairua, 01008 Gasteiz. Haatik, lehenik eta behin, erreklamazioa jarri ahal izango duzu Donostiak Datuak Babesteko Delegatuaren aurrean. dbo@donostia.eus.

9.- Ondorio horietarako, adierazten da, dagokion eskaera aurkeztuta, pertsona eskatzaileak aurreko lerroaldean jasotzen denetik eratoritzen den datuak jakinarazi edo lagatzeko aukera berariaz baimentzen duela.

21. ARTIKULUA ERANTZUKIZUNETIK SALBUESTEA

1.- Interesatuen aldetik eskaera aurkezteak horien Oinarriak erabat onartzea dakar.

2.- Pertsona onuraduna izango da laguntzaren xede den jarduera burutu aurretiko edo ondorengo jarduketengatik edo horien ondorioz sorrarazitako kalte pertsonal edota materialen gaineko erantzule bakarra, Donostiako Udala eta Donostiako Sustapena kontzeptu horien ondoriozko edozein erantzukizunetik at utziz.

Donostian, 2024ko urtarrilaren 23ean.